

Arropa denda batera sartu zara. Zer nahi duzu? galdetu dizute

HAIZEA HUARTE IRIGOIEN

DBH I. eta 2. kurtsoak 2. saria
Iruñeko Biurdana BHI

Lagun batekin nago gaur
Iruñeko kaleetan
arropa ikustera goaz
hemen ditugun dendetan
gainera denda guztiak
daude beherapenetan
ehuneko hogeita hamarrera
iristen dira horretan.
Amaiari esan diot
«sartuko al gara bertan?
Begira itzazu galtza hauek,
politikak dira benetan.»
Saltzailea etorri da
ta hasi zaigu hizketan
gu engainatzera dator
nabari du begietan.

Zergatik bihurtu gara
oraingo modan gatibu
gustuko ez dugun arropaz
beteta hamaika armairu
gainera arropa horrek
balio du hainbat diru
hemen ez erosi ezer
garesti irtengo zaizkigu
dendatik ateratzeko
unea bilatzen beti gu
nire amona jostuna da
ta ni naiz horren testigu
holako galtza politikak
berak egingo dizkigu
seguruenik arropa
merkeago irtengo zaigu.